

➤ FUNTSEZKO ELKARTEAK

Hasieran, Getxoko paperdendak izango ditugu bezero bezala eta han gure produktuak eskuragarri egongo dira.

HORNITZAILEAK

Gure produktua telaz eta birziklatutako plastikoz eginda dagoenez hornitzaile aproposak bilatu ditugu. Alde batetik, **BilboPlastik** enpresari PVC plastiko moldagarria erosiko diegu eta Algortakoa **Lindau Telas y complementos** enpresa txikiak telaz hornituko gaitu. Gainera, Lindau enpresa herrikoian materiala erostean, gure auzoko kontsumoa sustatuko dugu, aberastasuna gehituz.



BEZEROAK ETA BITARTEKARIAK

Gure produktuak webgunean salduz gain, Getxoko dendetan salduko dugu. Hauek bitartekari moduan egingo dute, gure produktua familiei zuzenean aurkeztuz. Hauek izango dira enpresa bitartekariak:

- Foto&Papel
- Elkar
- Itsasikus
- Klip Paper denda
- Prink Algorta
- Arte Barria
- Maite Eskulanak
- Libreria Cosas

ENPRESAREN BAZKIDEAK

- Yahirak **Bezeroekiko arretan** lan egingo du. Haien kezka entzuten eta arazoak konpontzen saiatuko da, telefono bidez eta gmail bidez. Gainera, bezeroak webgunean egiten dituzten galderak erantzungo ditu. Gainera, produktuen **eskaerak jasoko** ditu, hauek antolatuz eta produkzioarako prestatuz.

- Uxuek **finantzazioaren arloan** arituko da, enpresak egin beharreko inbertsioak behar bezala aztertuz, hileko gastuak kontrolatuz eta irabaziak aztertuz.
- Asier eta Deitze **biltegian** arituko dira, produktuak furgonetatik jaisten eta apaletan antolatzen, gero banaketa prestatzeko. Era berean, produkzioa haiek garatuko lukete, hornitzaileen produktuak eraldatuz eta azken produktua lortuz.